

Bizinema Bang Bang

"Zinemaren espiritu ludikoa berreskuratu nahi dugu"

Pelikula batzuk hobeak dira jende gehiagorekin ikusiz gero. Horri festa giroa gehituz gero, are esperientzia gozagarriagoa. Hala pentsatzen dute Irungo Bizinema Bang Bang ekimenaren bultzatzaileek. Zinema telebistan kontsumitzeko ohitura zabaldua dagoen garaiotan, 1980-90eko hamarkadetako film ikonikoak pantaila handian eta jatorrizko bertsioan ikusteko aukera eskaintzen dute.



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

"Pelikula ikustetik harago, pelikula bizi egiten dugu emanaldi hauetan; espiritu ludikoa berreskuratu nahi dugu, filma taldean gozatu. Publikoak filma ikusi birtartean parte hartzen du, adibidez eszena gogoangarrietan txalo eginez. Hori ez duzu areto komertzialean egiten eta halako esperientzia dibertigarria partekatzeak konplizitate handia sortzen du ikusleonean. Ondo pasatzea da helburua", diote egitasmoaren atzean daudenek. Horretarako, arratsalde-pasak antolatzen dituzte: bi pelikula ikusten dituzte, aurkezle eta aktore banak dinamizatuta, eta film horiei loturiko atrezzo, irudi, fotogramak... jantzen dute antzokia bera.

Irun erdialdeko zinema-aretoak itxi zizuten, eta Donostiako Bang Bang egitasmoa eredu hartuta (bost urte ditu Donostiakoak), 2017ko abenduan abiatu zen proiektua, Udalarekin batera elkarlanean. Bi saio egin dituzte ordutik: lehenengorako *Gremlins* eta *Jurassic Park* hautatu zituzten, bigarrenarako *Die Hard* eta *Aliens*, eta datorren azaroaren 3rako prest dute emanaldi bikoitza: *Indiana Jones: Riders of the Lost Ark* eta *The Big Lebowski*. Borrokarik handiena irudi eskubideak lortzea izan ohi da, aitortu dute, zenbait kasutan nahiko etsigarri bihurtzeraino.

Zenbatek ikusi du Indiana Jones zuzenean telebistan?, galdetu digute. Askok ez dituzte pelikula hauek zinema-aretoan ikusi, eta estreinatu zirenean aukera izan zuenak errepikatzeko abagunea du orain. Zinema pantaila handian ikusteko pentsatuta dagoela aldarrikatzen dute, batez ere garai hartakoa. Oroitzapen ona eta arrastoa utzi duten filmak hautatzen dituzte, jendeak eskatzen dituenak (zer ikusi nahiko luketen galdetzen diete ikus-entzuleei, saio amaieran banatutako orrietan). Ezezagunagoak diren lanak ere tartekatzen dituzte: "*The Big Lebowski* kultuzko filma da, jende ugari ez du inoiz ikusi, eta halako pelikulak ezagutzeko aukera ere eman nahi diegu; oreka bilatzen dugu". Emozionatzea eta barruan zerbait mugitzea, hunkitu zaituelako, barrea eragin dizulako... Hori da pelikula bati eskatzen diotena: "Harrapa zaitzala eta aretotik atera ondoren ere buruan bueltaka izatea". Drama generoa omen da oraingoz kanpoan uzten duten bakarra, emanaldietan sortzen den festa giroarekin ez datorrelako bat.

Komertziala, txarraren sinonimo?

Publiko zabalak gustuko duena, alegia komertziala dena, ez da beti film txar

rraren sinonimo: "Publikoak atsegin duena baina atzean lana duena, kalitate duena, aukeratzen dugu, eta Indiana Jonesena horren adibide da". Lehen gainera *blockbuster*-etan mimo gehiago jartzen zela diote, baina orain industriaren presiopean superproduktzioak bata bestearen atzetik egin behar dituztenez, sarri denbora gutxiago eskaintzen zaie. Baietz, *fast food* eredutik baduela zinema komertzialak, batzuetan oso film errepikakorrek direla behin funtzionatu duen hori etengabe esplotatzen dutelako, istorioak hutsalagoak direla, halere obra onak aurki daitezkeela... Zinemaz eztabaidatzen hasi dira gure solaskideak, ezin dute saihestu, elkarriketan zehar pelikulen, zuzendarien eta aktoreen inguruko erreferentziak, iritziak eta kritikak behin eta berriz tartekatu dituzte Jon Paul Arroyo, Adur Amilibia, Iñigo Martinez, Josu Benito eta Iñaki Goikoetxeak (azken hau, Udaleko Kultura sailaren ordezkaria). Bizinema Bang Bang emanaldietan, ordea, ez dago debaterik, zineklubetan egin ohi den moduan. "Halako debateek nolabaiteko solemnitatea eskatzen dute. Guk eztabaidak aretotik kanpo egiten ditugu, saiotik atera eta ondoko tabernan edo



Eskuineko argazkian, azaroaren 3ko kartela eskuetan, goiko ilaratik hasita eta ezker-eskuin: Josu Benito, Adur Amilibia, Jon Paul Arroyo, Iñigo Martinez eta Iñaki Goikoetxea. Emozionatzea eta barruan zerbait mugitzea, hunkitu zaituelako, barrea eragin dizulako... Hori da pelikula bati eskatzen diotena.



nahi den lekuan pelikulez hitz egiten jarraitzen dugu”.

Jatorrizko bertsioan hobeto

Zenbatek ikusi du Indiana Jones pantaila handian galderari beste bat gehitu diezaiokegu: zenbatek ikusi du jatorrizko bertsioan? Bizinema Bang Bangeko emandaldi guztiak jatorrizko bertsioan dira, gaztelaniazko azpiztituluekin. “Bi elementuk osatzen dute aktorearen lana, irudia eta ahotsa, eta biak funtsezkoak dira interpretazioan. Ahotsa kentzen badiozu, bere lana kamusten ari zara, eta gainera aktore batzuek garrantzia berezia ematen diote hitz egiteko eta adierazteko moduari, interpretazioaren parte den heinean”. Europako zinema-areto gehienetan jatorrizko bertsioa nagusi dela gogoratu dute, eta sarri bikoiztua hobesteko joera ezezagutza eta ohitura falta baino ez dela, gerta-

tu izan zaielako jendeak pelikula hasieran esatea ez dakiela pelikularen ñabardura guztiak ongi harrapatuko ote dituen, azpiztituluak irakurtzen aritu beharko duelako, eta bukaeran onartzea alderantzizkoa, pelikulari ñabardura gehiago atzeman dizkiola jatorrizko bertsioari esker.

Netflix gisako plataformen eragina medio, batzuetan kosta egiten zaigu pelikulak ikusteko etxetik ateratzea, eta horregatik pozik baloratzen dute ekimena pixkanaka hartzen ari den oihartzuna. Lehenengo saiora 300 lagun hurbildu ziren, bigarrenera 200dik gora (maiatzaren 1eko zubiarekin, gizonezkoen futbol derbiarekin eta Sagardo Egunarekin lehian), eta hirugarren honetarako ikusmina nabaria dela azpimarratu digute, galdezka daukatela jendea. Ezezagunak ere gerturatu zaizkio Adur Amilibiari, “*The Goonies* proiektatu behar duzue!”

eskatuz. Herri eta hirietan horrelako ekimenak zabaltzea ona dela uste dute, eskaintza areagotzeko, eta hiriburuetan ez kontzentratzeko. “Lehenengoan Donostiara joan nintzen, hemen ez dagoelako hango zine eskaintza, eta areto erdia eskualdeko jendea ginen”, kontatu du Iñigo Martinezek. Azken finean, zineklub eta zineforumak ere ez dira garai batean bezain oparoak “eta jende gutxiago erakartzen dute, baina pelikula arriskatuak ikusteko aukera ematen dute, eta hori bera ez da funtzio makala”.

Aurreiritzirik gabe eta aldarte onean gerturatzeko eskatzen diote herritarri, ziur dira entretenitzeko gogoz datorenak primeran pasako duela. Hortik aurrerako helburua, proiektua egonkortzen jarraitzea, jendeak agendan idatziko duen plana izan dadin Bizinema Bang Bangen zine saioa. ■